

### KASU PRAKTIKOA

Francisco jaunak etxe bat du jabetzan, B udalerrian. Ez da etxe horretan bizi, baina errentan dauka. Etxea Maria andrearen etxearen mugakidea da, eta, Mariaren ustez, aurri-egoeran dago.

Maria andreak B-ko Udalari eskatu dio Francisco jauna behartu dezala etxea eraistera, uste baitu Francisco jaunaren etxea eroriko balitz arazo larria litzatekeela bere etxerako ere. Maria andreak neurriak hartzeko eskatu dion guztietan, Francisco jaunak ukatu du egoera horretan dagoela; esaten du fatxadan arrakala bat besterik ez duela eta, handia bada ere, horrek ez duela ekarriko etxera behera erortzea.

Maria andreak eskabidea aurkeztu du toki-korporazioko erregistroan. Eskabidean, izena, abizenak eta jakinarazpenetarako helbidea adierazteaz gain, egitateak, eskabidea aurkezteko arrazoiak, eskabidea bera, aurkezteko lekua eta data, organo jasotzailea eta eskatzailearen sinadura jasotzen dira.

Esmeralda andrea etxe horren maizterra da, eta prozeduran pertsonatu nahi du, baina bere ahizpak adierazi dio ezin duela, etxearen jabea ez da eta.

Egunero, pertsona talde bat pasatzen da etxearen aurretik, seme-alabak herrian dagoen ikastetxe publiko bakarrera eramateko. Gainera, kale horretatik baino ezin da ikastetxera heldu.

Horrez gainera, Emilio jaunak —bere etxean bizi da bere familiarekin— beste eskabide bat aurkeztu du 10 egun lehenago, Francisco jaunaren etxea bota dadila eskatzeko; izan ere, uste du arrisku bat dela herritarrentzat, arrakalatzen hasi delako eta bere lorategira ematen duen horma behera egiten hasi delako.

Bestalde, Maria andreak taberna bat du jabetzan B udalerrian. 2001eko abenduaren 3an, eskabide bat aurkeztu zion Udalari, bere establezimendua dagoen kaleko zati bat ixteko, terraza bat jartzeko.

2002ko ekainaren 21ean, udako denboraldia hasita eta ikusita Udalak eskabideari erantzuten ez ziola, Mariak bere terraza inauguratu zuen, jai handi bat eginda.

Uztailaren 4an, B-ko Udalak ohartarazpen bat egin zion Maria andreari, eta esan zion tabernako terraza ireki izana ez zela legezkoa, Administrazioak ezezko ebazpena eman baitzion haren eskaerari.

Maria andreak, dirua gastatu ondoren eta terraza funtzionatzen jarri ondoren, ez zuen bidezkotzat jotzen Administrazioak hain berandu erantzun izana (bere eskaera ukatuz); beraz, errekurritzea erabaki zuen.

Erantzun galdera hauei:

- a) Ikuspuntu formala kontuan hartuta, Maria andreak zuzen aurkeztu dio eskabidea B-ko Udalari? Eskabideak aurkezteko lekuak. Behin aurkeztu ondoren, alda dezake eskabidea?
- b) Esmeralda andreak kasu egin behar dio ahizpari, eta prozeduran ez pertsonatu? Eta ikastetxe publikora doazen haurren gurasoek parte har dezakete prozeduran? Zergatik?
- c) Gurasoek ez badakite ezer hasitako prozeduraz, Udala behartuta dago prozedura jakinaraztera alegazioak aurkeztu ahal izateko? Hala bada, zer epe dute egokitzen jotzen dutena alegatzeko?
- d) B-ko Udalak ofizioz har ditzake behin-behineko neurriak edo Maria andreak eskatuta bakarrik har ditzake neurri horiek? Zertarako dira behin-behineko neurri horiek? Noiz ezin dira hartu? Behin-behineko neurriak prozedura hasi aurretik hartuz gero, noiz hasi beharko da prozedura? Zer gertatuko da hasten ez bada? Behin-behineko neurriak hartu ondoren, alda daitezke neurri horiek? Zergatik?
- e) Posible da Maria andreak eta Emilio jaunak abiarazitako prozedurak metatzea? Zergatik? Zer organok erabaki dezake prozedura batean metatzea? Zer errekurtso jar dezake Francisco jaunak metatze hori gauzatzeko erabakia hartzen bada?
- f) Administrazioa behartuta dago esanbidezko ebazpena ematera? Azaldutako kasuan esaten denean Administrazioak ezezko ebazpena eman diola Mariaren eskaerari, Administrazioaren zer ebazpen motaz ari gara? Prozedura konkretu bati buruzko araudian ez bada esaten zein den ebazpena emateko epea, zein izango da horretarako gehieneko epea? Gerta liteke Administrazioak epez kanpo esanbidez ebatzi izana? Erantzuna baiezkoa bada, zer terminotan egin du?
- g) Zuzena da Maria andreak eginikoa (tabernako terraza irekitzea) edo, aitzitik, Udalak du arazoia (esaten dionean ezin duela hori egin)? Zergatik? Maria andreak errekurritu dezake Udalaren ebazpena? Zer errekurtso mota aurkez dezake? Zergatik? Zer gertatuko da Maria andreak errekurtsorik jartzen ez badu? Esanbidezko ebazpenik ez dagoenez, nola egiaztatu daiteke presuntzio hori?
- h) Terrazak funtzionatzen jarrai dezake harik eta jarritako errekurtsoa ebatzi arte? Maria andreak berraztertze-errekurtso bat jartzen badu, administrazioarekiko auzien jurisdikziora ere jo dezake aldi berean? Zergatik? Administrazioak Maria andreak aurkeztutako errekurtsoa ezesten badu, nora jo dezake interesdunak errekurtsoaren ebazpena aurkaratzeko?

## SUPUESTO PRÁCTICO

Don Francisco es propietario de una casa en el Municipio B. Esta casa, en la que él no habita pero que tiene alquilada, es colindante con la de Doña María y según esta, se encuentra en un estado ruinoso.

Doña María solicita al Ayuntamiento de B que obligue a Don Francisco a derribar el edificio ya que considera que constituye un grave e inminente peligro, incluso para su propia casa, si se derrumbase la de Don Francisco; éste, siempre que ella le ha rogado que tomase medidas, ha negado que se encuentre en tal estado y sostiene que solo tiene una grieta en la fachada, que aunque es grande no supone que la casa vaya a desplomarse.

La solicitud es presentada por Doña María en el Registro de la Corporación Local y en ella, además de su nombre, apellidos y lugar a efectos de notificaciones, expone los hechos, las razones por las que presenta la solicitud y la petición concreta de la misma, así como el lugar y la fecha de presentación, el órgano al que se dirige y al final la firma de la solicitante.

Doña Esmeralda es la inquilina del inmueble en cuestión y quiere personarse en el procedimiento, pero su hermana le indica que no puede hacerlo ya que no es la propietaria de la casa.

Hay un grupo de personas que diariamente pasan por delante de ese edificio para llevar a sus hijos al único colegio público de la localidad, siendo la calle donde se encuentra el inmueble la única por la que se puede acceder al colegio citado.

Por otra parte, Don Emilio, cuya casa en la que vive junto a su familia, había presentado 10 días antes una solicitud ante el Ayuntamiento pidiendo también que se derribase el edificio de Don Francisco, por considerar un evidente peligro para la ciudadanía ya que se estaba empezando a agrietar y ceder la pared que daba a su jardín.

Por otro lado, Doña María es la titular de un bar situado en el Municipio B. Con fecha 3 de diciembre de 2001 presenta en el Ayuntamiento del Municipio una solicitud para cerrar una parte de la calle en la que se encuentra su establecimiento para instalar un velador o terraza.

El día 21 de junio de 2002, al comenzar la temporada de verano y no haberle contestado nada el Ayuntamiento respecto a su solicitud, María inaugura su terraza con una gran fiesta.

El Ayuntamiento de B llama la atención a Doña María, el día 4 de julio, diciéndole que no es legal la apertura de la terraza de su bar ya que la Administración ha resuelto negativamente su pretensión.

Doña María considera injusto que tras haber efectuado un desembolso económico y

haber puesto en funcionamiento su terraza, la Administración conteste a su petición después de tanto tiempo y denegándola, por lo que decide recurrir.

Responda a las cuestiones que se plantean a continuación:

- a) Desde un punto de vista formal, ¿presenta Doña María correctamente su solicitud al Ayuntamiento de B? Lugares de presentación de las solicitudes. Una vez presentada, ¿podría modificarla?
- b) ¿Debe Doña Esmeralda hacer caso de su hermana y no puede personarse en el procedimiento? Y los padres de los niños que van al colegio público, ¿pueden formar parte del procedimiento? ¿Por qué?
- c) Si los padres de los niños no supiesen nada de la existencia del procedimiento iniciado, ¿tiene el Ayuntamiento obligación de comunicárselo para que formulen alegaciones? En caso afirmativo, ¿en qué plazo deberían personarse para alegar lo que creyesen oportuno?
- d) ¿Podría el Ayuntamiento de B adoptar medidas provisionales de oficio o solo podría hacerlo si Doña María lo hubiese solicitado? ¿Para qué sirven las medidas provisionales? ¿Cuándo no pueden tomarse? Si se adoptan medidas provisionales antes de iniciar el procedimiento, ¿cuándo se deberá iniciar el procedimiento? ¿Qué ocurrirá si no se inicia? Una vez tomadas las medidas provisionales, ¿podrían modificarse? ¿Por qué?
- e) ¿Es posible la acumulación de los procedimientos iniciados por Doña María y Don Emilio? ¿Por qué? ¿Qué órgano podría disponer la acumulación en un procedimiento? ¿Qué recurso podría interponer Don Francisco si esa acumulación pudiese ser decidida y adoptada?
- f) ¿Tiene la Administración obligación de resolver de forma expresa? Cuando en el supuesto de hecho se dice que la Administración ha resuelto negativamente la pretensión de María, ¿a qué tipo de resolución de la Administración se refiere? Si el Reglamento que regula un procedimiento concreto no establece el plazo en que éste debe ser resuelto, ¿cuál será el plazo máximo para resolver? ¿Puede la Administración haber resuelto expresamente fuera de plazo? Si la respuesta es afirmativa, ¿en qué términos lo hubiese podido hacer?
- g) ¿Es correcta la actuación de Doña María al abrir la terraza de su bar o, por el contrario, tiene razón el Ayuntamiento al decirle que no puede hacerlo? ¿Por qué? ¿Puede María recurrir la resolución del Ayuntamiento? ¿Qué clase de recurso podría plantear? ¿Por qué? ¿Qué ocurre si María no interpone recurso? Al no haber una resolución expresa, ¿cómo puede acreditar dicha presunción?
- h) ¿Podría la terraza seguir en funcionamiento hasta que se resolviese el recurso interpuesto? Si Doña María hubiese planteado un recurso de reposición, ¿podría acudir a la vez a la jurisdicción contencioso-administrativa? ¿Por qué? Si la Administración resuelve el recurso planteado por Doña María desestimando su pretensión, ¿dónde podría acudir la interesada para impugnar la resolución del recurso?